BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4398

AGINDUA, 2012ko irailaren 3koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena. Honen bidez, Euskal Herriko Unibertsitateko graduko eta masterreko ikasketa ofizial batzuk ezartzea eta beste batzuk kentzea baimentzen da.

Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak aldatuak) 8.2 artikuluan dioenez, estatuko lurralde osorako balioa izango duten titulu ofizialak lortzeko irakaskuntzak ezartzea eta kentzea autonomia-erkidegoak erabakiko du, bai Gizarte Kontseiluak proposatuta, bai erkidegoaren beraren ekimenez, kontseilu horren adostasunarekin, eta, betiere unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak txostena eman ondoren.

Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legeak, otsailaren 25ekoak, bere 51. artikuluan arautu du Goi-mailako Hezkuntzako Europako Esparrura egokitzea. Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailak eta unibertsitateek euskal unibertsitate-sistema goi-mailako irakaskuntzako Europako sisteman sartzeko eta tituluaren Europako gehigarriaren diploma emateko nahitaezko egokitzapenak bultzatuko dituzte ikasketa-planetan eta kredituen eta balorazioen sistemetan, eta haiekin batera beharrezkoak diren gainerako neurriak.

Titulu ofizialak nola ezarri arautzen dute urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak (uztailaren 2ko 681/2010 Errege Dekretuak aldatzen duenak), unibertsitateko ikasketa ofizialak arautzen dituenak, eta urtarrilaren 20ko 11/2009 Dekretuak, Gradu, Master eta Doktorego tituluak lortzeko egin behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzkoak.

Hain zuzen ere, 1393/2007 Errege Dekretuak, urriaren 29koak, 8. artikuluan xedatzen du estatu osoan izaera ofiziala eta baliozkotasuna duten tituluak lortzeko egin behar diren unibertsitate-ikasketak hiru ziklotan egituratuko direla: Gradua, Masterra eta Doktoregoa izenekoetan, hain zuzen.

Urtarrilaren 20ko 11/2009 Dekretuak 16. artikuluan arautzen du zer prozedura jarraitu behar den Gradu, Master eta Doktoregoko unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzeko baimena lortzeko. Artikulu horren arabera, Unibertsitate Kontseiluak egokiak direla ziurtatzen duen ebazpena eman ondoren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak agindu-proposamena prestatu behar du, Gradu, Master eta Doktoregoko unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzea baimentzeko.

2011ko uztailaren 13an eta 2012ko uztailaren 11n, EHUko Gizarte Kontseiluak graduko eta masterreko titulu ofizialak lortzeko ikasketak 2012-2013 ikasturtetik aurrera ezartzea onartu zuen, Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak txostena eman ondoren.

ANECA-Kalitate eta Ziurtapenaren Ebaluazio Agentzia Nazionalaren ebaluazio-txostena jaso eta gero, Hezkuntza Ministerioko Unibertsitate Kontseiluak egokitzat jo du Euskal Herriko Unibertsitateak aurkeztutako graduko eta masterreko ikasketen proposamena, betiere uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuko 25.7 artikuluan ezarritakoaren arabera (861/2010 Errege Dekretuak urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua aldatzen du, hots, unibertsitate-ikasketa ofizialen antolamendua ezartzen duen errege-dekretua).

Hori dela eta, eta Gradu, Master eta Doktorego tituluak lortzeko unibertsitate-ikasketa ofizialak nola ezarri eta kendu arautzen duen urtarrilaren 20ko 11/2009 Dekretuaren 16. artikulua aplikatuz, eta jakitun jartzeko, txostena eman eta gero Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluari 2012ko uztailaren 26ko bilkuran eta Euskadiko Unibertsitate Kontseiluari 22 uztailaren 26ko bilkuran, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Baimena ematea I. eranskinean jasotako graduko eta masterreko ikasketa ofizialak eranskin horretan aipatutako ikasturtetik aurrera ezartzeko.

Bigarren artikulua.– Automatikoki baimenduko da II. eranskinean jasotzen diren graduko eta masterreko ikasketa ofizialak ezartzea, 2012-2013 ikasturtean irakats daitezen, betiere Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 8.2 artikuluan eta uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuaren 25.8 artikuluan xedatutakoa bete ondoren (861/2010 Errege Dekretuaren bidez, 1393/2007 Errege Dekretua aldatzen da, unibertsitateko ikasketa ofizialak arautzen dituena).

Hirugarren artikulua.– Baimena ematea III. eranskinean azaltzen den ikasketa ofiziala 2011-2012 ikasturtean kentzeko.

Laugarren artikulua.– Baimentzen diren gradu-ikasketa ofizialek sei urte igaro baino lehenago izan beharko dute berrituta ziurtapena, betiere hasierako ziurtapena eman zenetik aurrera. Hirugarren artikulua. Baimentzen diren master-ikasketa ofizialak lau urte igaro baino lehenago izan beharko dute berrituta ziurtapena, betiere hasierako ziurtapena eman zenetik aurrera.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Agindu hau Hezkuntza Ministerioari jakinaraztea, Gobernuari proposa diezaion tituluak ofizialtzeko eta Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan jaso eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko.

Bigarrena.– Urtarrilaren 20ko 11/2009 Dekretuaren 19. artikuluak xedatutakoari jarraikiz, Euskal Herriko Unibertsitateak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari memoria bat bidaliko dio urtero, dagozkion matrikulazio-datuei eta aurreko ikasturtean titulazio bakoitzak izandako kostu ekonomikoei buruzkoa, ikasturte akademiko bakoitzaren matrikulazio-epea bukatu ondoren eta, betiere, abenduaren 30a baino lehen. Aipatutako dekretuaren II. eta III. kapituluetan jasotako baldintzaren bat betetzen ez bada, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak unibertsitateari beharrezko neurri zuzentzaileak hartzeko eskatuko dio. Aipatutako baldintzak ez betetzen jarraituko balitz, Euskal Herriko Unibertsitateak ikasketa horri beste prozedura bat egin beharko dio, ziurtapenari eutsi ahal izateko, edo bestela, ez du berriz eskaini beharko.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 3a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

I. ERANSKINA

GRADUAREN TITULAZIOA ONARTZEA

Tituluaren izena	Noiz baimendu den	Adarra
Arkitekturaren Oinarriei buruzko graduatua	2011-2012 ikasturtea	Ingeniaritza eta Arkitektura

MASTERRAREN TITULAZIOA ONARTZEA

Tituluaren izena	Noiz baimendu den	Adarra
Telekomunikazioaren Ingeniaritzari buruzko unibertsitate-masterra	2012-2013 ikasturtea	Ingeniaritza eta Arkitektura
Industria Ingeniaritzari buruzko unibertsitate-masterra	2012-2013 ikasturtea	Ingeniaritza eta Arkitektura
Garraio Sistemei buruzko unibertsitate-masterra	2012-2013 ikasturtea	Ingeniaritza eta Arkitektura

II. ERANSKINA

GRADUAREN TITULAZIOA ONARTZEA

Tituluaren izena	Adarra
Prozesu eta Produktuen Berrikuntzarako Ingeniaritzari buruzko graduatua	Ingeniaritza eta Arkitektura

MASTERRAREN TITULAZIOA ONARTZEA

Tituluaren izena	Adarra
Arte Garaikide Teknologiko eta Performatiboari buruzko unibertsitate-masterra	Arteak eta Giza Zientziak
Pinturari buruzko unibertsitate-masterra	Arteak eta Giza Zientziak
Hizkuntza Politikei eta Plangintzari buruzko unibertsitate-masterra	Arteak eta Giza Zientziak
Ekonomia Sozial eta Solidarioari buruzko unibertsitate-masterra	Gizarte eta Lege Zientziak
Abokatutzari buruzko unibertsitate-masterra	Gizarte eta Lege Zientziak

III. ERANSKINA

TITULAZIOA KENTZEA

Tituluaren izena	Adarra
Arkitekturari buruzko graduatua	Ingeniaritza eta Arkitektura